

Lanparak eta ispiluak soziolinguistika ezagutza zabaltzeko

MAHAI INGURUA¹

Arkaitz Zarraga

Euskara irakaslea

azarramendi@gmail.com

Sarrera-data: 2011-05-27 | Onartze-data: 2011-07-30

Laburpena. Soziolinguistika Klusterrak antolatutako IV jardunaldian egin zen ondoren dakargun mahai-ingurua. Ling Yutang idazle txinatarraren ideia batekin eman zitzaion hasiera mahai-inguruari, alegia, argia zabaltzeko bi bideetatik (argia igortzen duen lanpara izatea edo argia islatzen duen ispilua) zein izan beharko lukeen euskal soziolinguistikaren ezagutza behar den lekuetara hel dadin. Helburu horrekin bildu ziren lau aditu. Horietako bi unibertsitateko irakasleak ziren eta beste biak euskal soziolinguistika-arloan lan berezia egiten ari diren bi blog-etako sortzaile eta kudeatzaileak. Mahai-inguruan oso agerian geratu zen soziolinguistikaren ezagutza zientzia modura zabaltzearen beharra, baina baita dibulgazio sozialak beste ezaugarri komunikatibo batzuk lehenetsi behar dituela. Kanal eta tresna guztiak beharrezkoak izan arren, bakoitzak berariazko tresnak erabiltzearen beharra azpimarratu zen • **Hitz-gakoak:** *dibulgazioa, internet, homologazioa, komunikazioa.*

Abstract. Lamps and mirrors to spread knowledge about sociolinguistics (Roundtable discussion). This deals with the roundtable discussion that took place following the 4th conference organised by the Sociolinguistics Cluster. The roundtable discussion started with an idea from the Chinese writer Ling Yutang: of the two ways for spreading light (the lamp that shines or the mirror that reflects the light), which should be the one to enable knowledge about Basque sociolinguistics to reach the places where it is needed. Four experts met with this aim in mind. Two of them were university lecturers and the other two, a blogger and blog manager, are doing specific work in the sphere of Basque sociolinguistics. The need to spread knowledge about sociolinguistics as a science became very clear in the course of the roundtable discussion, but that other communicative features also need to be prioritised by social popularisation. Although all channels and tools are necessary, the need for the use of specific tools was stressed. • **Key Words:** *popularisation, Internet, standardization, communication.*

Ling Yutang idazle txinatarraren ideia batekin emango diogu hasiera mahai-inguru honi. Berak esaten zuenez, argia zabaltzeko bi bide daude: argia igortzen duen lanpara izatea edo argia islatzen duen ispilua. Hori da orain aztertu nahi duguna, ispilua non jarri beharko litzatekeen, zer ispilu-mota beharko genukeen euskal soziolinguistikaren ezagutza behar den lekuetara hel dadin.

Helburu horrekin bildu ditugu mahai honetara honako adituak. Hasiteko, **Benito Fiz** santutxuarra dugu, euskal filologian lizentziatua, AEK-ko irakasle, eta gaur egun didaktika-saileko koordinatzailea. Gainera, ezaguna da *Karrajua* eta *Atoan* blogak gidatzen dituelako. Berak alfabetatzearen inguruko ekarpen polita egin zuen BAT aldizkariko 62. zenbakian². Bere ikuspegia oso garrantzizkoa dela pentsatzen dugu, batez ere, alfabetatzeak soziolinguistikarekin oso harreman estua duelako. Horregatik, irakasleen eta ikasleen fokoa mahai honetan egotea interesgarria dela uste dugu.

Alboan **Julen Arexoaleiba** arrasatearra dugu, soziolinguista eta psikopedagogo. Gaur egun Mondragon Unibertsitatearen irakasle-eskolan eta psikopedagogian irakaslea da, eta *Euskal Kulturgintzaren Transmisioa* graduondoaren koordinatzailea. Soziolinguistika eremuan ibilbide luzea egin du, besteak beste, 1989tik 1994ra kaleratu zen *Jazten* soziolinguistika aldizkariaren zuzendari 1990eko hamarkadan, bai eta *Adorezko Atseginez* mintegiaren zuzendari. 1997. urtean EMUN kooperatibaren sortzaileetako bat izan zen beste kide batzuekin batera. 1996tik 2005era bitartean Ulibarri programaren aholkularitzan ere aholkulari lanetan ibili da.

Ondoren, **Jacqueline Urla** dugu. Kansas-en jaioa, kultur antropologian doktorea da Berkeleyko Unibertsitatean. Bere tesiaren izenburua *Be in Basque, speaking Basque, the politics of language and identity in the Basque Country* da, eta gaur egun Massachusetts-eko Amhersteko Unibertsitatean irakasle eta Europa modernoari buruzko ikasketen zuzendari. Azterketa kulturaletan, nazionalismoan eta genero-gaietan, antropologia bisualean eta linguistikokoan espezializatutako ikerlaria da eta euskararen inguruko soziolinguistika-ikerketetan aritua. Beste batzuen artean Txillardegiren eta Bilboko Kafe Antzokiaren ekarpenen inguruan zenbait artikulua idatzi ditu.

Mahia osatzeko **Txerra Rodriguez** deriotarra gonbidatu dugu. Zuzenbidean lizentziatua da eta gaur egun EMUNeko teknikaria. Besteak beste *Lan ta Lan* blogaren kudeatzailea da bertan. Gainera, *Garaigoikoa* soziolinguistikari buruzko blogaren sortzailea eta gidaria ere bada. Bertan, BAT aldizkariko artikuluei buruzko iruzkinak egin ohi ditu eta *soziolinguistikaren berripaperaren* berri ematen du. Horrez gain, alor honen inguruko material ugari topa daiteke bertan. Derioko Tximintx euskara el-

Uste dut BAT aldizkaria prekarietatean egindako aldizkaria dela eta, hori kontuan izanik, lortutakoa benetan gauza handia dela.

**Latindex moduko
zerrendetara
heltzeko
ahalegina egitea
ondo legoke.
Gure aldizkariak
eremu horietan
sartzea oso
interesgarria
litzateke, horrek
ekarriko
lukeelako
bertako
ikerlarien lanak,
bertako
aldizkarietan
argitaratuz gero,
balidatuak izatea
puntuen bitartez.**

karteko kide ere bada, eta, jakina, bertako blogeko partaidea. Euskara-elkarteko Topaguneko langile ohia da, eta helduen euskara alfabetatzean ere esperientzia luze duna.

Mahai-inguruari hasera emateko aipatu dezadan alde batetik, *BAT Soziolinguistika Aldizkariaren* 20. urteurrena ospatzen ari garela aurten. Denbora-tarte honetan azpimarratzeko artikulu asko eta asko eman ditu argitara aldizkariak, batez ere euskal soziolinguistikaren esparruan. Bestalde, aipatu nahi nuke aurten *Soziolinguistika eskuliburuak* argia ikusi duela.

Hasteko, euren iritzia eskatuko nieke mahai-kideei BAT aldizkariaren inguruan. Zer ekarpen egin du zuen iritziz BAT aldizkariak dibulgazioaren aldetik? Eta bigarrenik, zer ekarpen egin dezake argitaratu berri den *Eskuliburuak*?

JULEN AREXOLALEIBA. Azkenengo BATEko 77/78 zenbakietan Imanol Esnaolak eta Maria—Jose Azurmendik errepaso sakon bat egin diote BAT aldizkariari³. Ni esaten dituztenekin identifikatzen naiz, esate baterako Imanol Esnaolak esaten duenarekin. Uste dut BAT aldizkaria prekarietatean egindako aldizkaria dela eta, hori kontuan izanik, lortutakoa benetan gauza handia dela. Nik uste dut urteak joan eta urteak etorri BAT aldizkarian ibili direnak zoriontzea dagokigula.

Baina, etorri zaidan beste gogoeta bat honakoa da. Delako herri mugimenduak *versus* instituzioak dikotomian, azkeneko 30 urteko ibilbide diakroniko horri erreferentzia eginez, Euskal Kultur Batzordeak (EKB) sortutakoa da aldizkaria, ezta? Gaur egun ezagutzen dugun BAT aldizkaria, hasiera batean behintzat, handik dator. Beste arlo batzuetan ere antzera gertatzen da. Azpimarratuko nuke garai bateko trintxeretatik ingurura erakartzeko ahalegina egin duela, eta kanpotik aitortu egiten zaio ahalegin hori. Ikusi besterik ez dago zein firma egon diren BAT aldizkaria sortu zenetik, eta urteak aurrera egin ahala oso jende gutxik egin diola boikota. Alde horretatik uste dut beste leku batzuetan gertatu behar denaren aitzindari ere badela BAT aldizkaria.

Bestalde, globalizazioaren exigentzia dela-eta gogoeta bat egin nahi nuke. Gu unibertsitatetik gatoz eta unibertsitate-munduan merituak pilatu behar dira, ezta? Meritu akademikoak lortzeko leku jakinetan argitaratu behar izaten da, lan horiek balidatuak izan daitezen. ISI erakundea (Institute of Science Information) da artikuluak modu horretan puntuatzeko tresna erabiltzen duena. Bistan denez, hizkuntza nagusia eremu horietan ez da euskara. Beraz, datorkidan gogoeta honakoa da: euskaraz argitaratzen jarrai dezagun, eta gure komunikabideei eman beharrekoak euskaraz eman ondoren, zabal gaitezen beste hizkuntza batzuetara. Alde horretatik,

BAT-en zaudetenok gogoan izango duzue ahalegina egin beharko litzatekeela horretara iristeko. Esate baterako, Latindex moduko zerrendetara heltzeko ahalegina egitea ondo legoke. Gure aldizkariak eremu horietan sartzea oso interesgarria litzateke, horrek ekarriko lukeelako bertako ikerlarien lanak, bertako aldizkarietan argitaratuz gero, balidatuak izatea puntuen bitartez.

Hala ere, bukatzeko esango dut zalantza badaukadala parametro horietan euskaratik lehiatzeko moduan ote gauden. Edo hemen egiten ditugunak egiten ditugula ere, zenbateraino aurreratuko dugun, baina hala eta guztiz ere uste dut ahalegin hori egin, egin behar dugula. Esan nahi dut badaudela eskakizun akademiko eta burokratiko batzuk eramango gaituztenak ingelesez publikatzera, munduan zehar leku gehientsuenetan gertatzen ari den eran, baina jarrai dezagun euskaraz argitaratzen. BAT horretarako oso plaza polita da, eta BATek baliokidetzat horiek lortzea denentzat onuragarria litzateke. Berdin ere Uztarok, Ttanttak eta gainerakoek.

TXERRA RODRIGUEZ. Hasteko eta behin, Julenek aipatu duen azkenaren haritik tiraka egin gura dut gogoeta. Neure buruari galdetzen diot ea BAT aldizkaria, benetan aldizkari dibulgatiboa ala aldizkari zientifikoa den. Nik uste dut BAT aldizkari zientifikoa dela, ia-ia unibertsitate mailakoa, baina ez dibulgaziozko aldizkaria, dibulgazioa nik ulertzen dudan eran behintzat. Nire iritziz dibulgazioa ezagutza zientifikoa denen eskura jartzeko ahalegina da, eta aldizkariak duen itxurarekin, formatuarekin, zuri-beltzeko koadroekin eta 10-15 orri inguruko artikuluz osatuta dibulgazioa egitea gaitza da, eta are gaitzagoa gaur egun, XXI. mendean. Denok jotzen dugu ahalik eta modu laburrenera eta zehatzenera, ezta? Horrelako aldizkariak beharrezkoak dira, horrelako artikulua zientifiko luzeak ondo daude, ezagutza zientifikoa sortu behar baita. Baina zentzu horretan, bi hanka ditu gaiak Imanol Esnaolak ere aipatzen duen moduan. Esnaolak ez du ikusten aldizkari moduan BAT, baizik eta bi hankadun proiektu komunikatibo moduan: bata ezagutza zientifikoaren berri emango du eta besteak ezagutza zientifiko hori dibulgatzeko ahalegina egingo du.

ARKAITZ ZARRAGA. *Eta zer iritzi duzue Soziolinguistika Eskuliburuaz?*

JULEN AREXOLALEIBA. Eskuliburuari buruz beste ebidentzia bat aipatuko nuke. Nik uste dut hemen ere lehen aipatutako prekarietateari buruz esandakoa errepikatu behar dela. Prekarietatean izanik ere lan handia egin da eta zoriontzea badagokigu. Ezinbesteko erreferentzia izango da aurrerantzean, hemen gai honetan sakontzen jarraitu nahi duenarentzat.

Hala ere, galdera bat planteatzen da hor. Nor geratzen da bere betebeharrak ase gabe? Alde batetik, oraintxe Txerrak aipaturikoaren ildotik

Bi hanka ditu gaiak Imanol Esnaolak ere aipatzen duen moduan. Esnaolak ez du ikusten aldizkari moduan BAT, baizik eta bi hankadun proiektu komunikatibo moduan: bata ezagutza zientifikoaren berri emango du eta besteak ezagutza zientifiko hori dibulgatzeko ahalegina egingo du.

Esango nuke euskaltzaleok badugula beste kezka bat, aktibismo bat, militantzia bat, jendearen partetik ekimenerako joera bat. Horrek gaiarekiko kezka bat edo jakin nahi bat dakar. Horren sintoma izan daiteke soziolinguistika popularra sortzen dela.

jarraituz, galdera honakoa da: dibulgazioa liburu bat da? zientifikoa da? edo erdibidekoa? Edozein arlotatik hartuta, hor dauden gaiak gehiago sakondu daitezke, ezta? Baina, hala ere, baliagarria da. Beraz, esango nuke denon beharrak ase gabe geratzen direla, alde batetik edozein arlotan hori baino askoz gehiago sor daitekeelako. Gainera, kontuan izanda beste hizkuntza batzuetan zer dagoen, geu ere horretara heldu gura izanez gero, oraindik lan asko egiteko dagoela konturatzen gara. Nolanahi ere, dagoena erabiltzen hasten baldin bagara, horrekin ere aurrerabide handia egingo dugu. Alde horretatik, gure fakultatean Bolonia dela eta ez dela egindako gogoeta bat datorkit gogora. Adibidez, irakasle-ikasketak hiru urtetik lau urtera pasa dira, ikasketa-programak aldatu egin behar izan ditugu, eta urtetik urtera aldatzen ari gara. Iruditzen zait hemen gaudenok ahal dugunean ikasketa-proiektu eta plan berri horietan material hau edo hemen agertzen direnak txertatzeko ahalegina egin beharko genukeela, eta orain dela momentua. Bost urte barru gradu berri guztiak martxan egongo dira, eta gaitegiak eta gainerakoak finkatuta egonik, zaila izaten da buelta ematea. Egiten ari garen honetan, nik neure burua eta beste batzuk animatuko nituzke, ahal den neurrian gutxienik, material horiei sarbidea egin diezaiegun.

ARKAITZ ZARRAGA. Eskuliburua hartzen baduzue, ikusiko duzue sei ataletan banatua dagoela. Horrek erakusten du soziolinguistikaren ikuspegi zabala hartu nahi izan dugula. Badakizue terminologiaren inguruan ere badagoela, batez ere nazioartean, eztabaida soziolinguistika linguistika ote den. Mikel Zalbide berak ere⁴ BAT aldizkariaren azkeneko alean hizkuntzaren soziologia aipatzen du; guk zentzu horretan, zentzu zabalean egin dugu liburua. Dena den, galdetu nahi nuke soziolinguistikak hartzen dituen esparru guztien artean, zein arlotan gabiltza ondo dibulgazioari begira eta zein arlotan makalago?

BENITO FIZ. Hemen, neurri batean edo bestean, hizkuntzaren inguruan gabiltza denak. Batzuk helduen euskalduntzearen gaian, eskolan, eskola teknikoan, eta abar. Baina lehenik esan dezadan soziolinguistika terminoan *sozio* hitza nabarmendu behar dela. Hizkuntza berez *sozioa* da, tresna sozial bat, beti dugu alde sozial hori. Beraz, neurri batean edo bestean *sozio* hori hor dugu. Adibidez, sartzen bazara hizkuntzen irakaskuntzarentzat *Europako Erreferentzia Markoa* deitzen den horretan, bertan agertzen da hori guztia. Hizkuntza gizartean gertatzen da, pertsonen artean gauzak egiteko tresna bat da.

Badago bigarren kontu bat gurean. Esango nuke euskaltzaleok badugula beste kezka bat, aktibismo bat, militantzia bat, jendearen partetik

ekimenerako joera bat. Horrek gaiarekiko kezka bat edo jakin nahi bat dakar. Horren sintoma izan daiteke soziolinguistika popularra sortzen dela, esate baterako, *diglosia* terminoa jendearengana nola heldu den ikusten badugu. Eta hau gertatu da, helburu bat, kezka bat eta transmisioa egon delako egin da. Hor, behar bada, gako bat dago, izan ere soziolinguistikarekin, hizkuntzarekin kezka bat badago, nahi dugulako gure inguru soziala eraldatu, hizkuntza txertatu.

Gure kasura etorrita, helduen hizkuntza-irakasleei galdetuz gero ea ikasleek euskara ikastea nahi duten bakarrik, gehienek ezezkoa erantzungo lukete. Gehienek ikasteaz gain euskara erabiltzea ere nahi dute, egin daitekeen lekuetan egitea, eta euskararen aldeko sustapen lana izatea. Nolabaiteko aldaketa soziala eskatzen ari gara. Zentzu horretan, soziolinguistikak paper bat bete behar du. Zein paper? Zein da arlo inportanteena? Ziur aski momentu bakoitzean batak edo besteak hartuko du garrantzia: transmisioak, ikasketa-moduak...

JACQUELINE URLA.⁵ Hasteko, azpimarratu nahi nuke sinestezina dela niretzat horrelako bilera batean egotea. Estatu Batuetako irakasle modura esan dezaket oso gutxitan izan dudala horrelako bilkuretan parte hartzeko aukera, non elkartzen diren udalerrietako teknikariak, unibertsitateko irakasleak, eskoletakoak eta administraziokoak. Ni bizi naizen lekuan behintzat ez dira ugariak horrelako bilkurak. Eta dibulgaziorako oso garrantzizkoak dira, ezta?

Azpimarratu nahi nuke Mikel Zalbidek bere artikuluan egiten duen proposamena, *Clearing House* eraikitzekeo ideia, alegia.⁶ Etxe horretan euskararen inguruan burutzen diren lan guztiak bilduko lirateke, eta baita beste hizkuntza gutxituetakoak ere. Mota honetako zentro batek, eta ez liburutegiak, asko lagundu diezaieke, bai ikertzaileei, bai teknikariei egiten ari diren lanak zabaltzen. Hantxe bildu daitezke udalek egindakoa, prentsak eta aldizkari espezializatuek argitaratutakoa... Lanen arteko eraketak sustatzeko ere, edota hizkuntza desberdinen biziberritze-prozesuen inguruko lan konparatuak egiteko oso baliagarria litzateke. Berak aipatzen du erkaketa horietatik estrategia berriak irudikatzekeo aukera sortuko litzatekeela, baita teorian aurreratzeko ere. Izan ere, teoria ere oso garrantzitsua da. Norbaitek esaten zuen “ez dagoela teoria on bat baino gauza praktikoagorik”.

Beste bide batetik, esan dezadan interesgarria litzatekeela marko teorikoa pixka bat irekitzea. Soziolinguistika arloa oso zabala da eta, esango nuke hemen hizkuntzaren inguruko era guztietako ikerketa sozialak izendatzeko erabiltzen dela terminoa. Badakigu lerro desberdinak dituela. Laurogeiko hamarkadan hizkuntza-plangintzari eman zitzaion lehenta-

**Nire ustez
hutsune bat
badago
antropologiaren
ikuspegitik:
hizketaren
inguruko
ikerketak,
hizkuntza
naturalaren
erabileraren
ikuspegitik
burutzea.
Hemengo
ikerketa
soziolinguistikoak
hizkuntzaren
etnografia
erabiltzen has
daitezke.**

Niri zientzia kontzientziaduna interesatzen zait, errealitatean eragiteko zer dugun jakitea, ez berez norberaren ganbara betetzeko.

suna, eta horretarako informazioa ezinbestekoa zen. Horrek demolingüistikaren esparruko lan ugari ekarri zituen, populazioaren datu demografikoen ingurukoak, hain zuzen: zenbat euskal hiztun, zein gaitasun, non bizi diren, eta abar. Horretan oso ahalegin handia egin zen. Euskaldunen tipologia egin dugu eta euskararen erabilera ere neurtu da. Aipagarria da kale *erabileraren neurketa*, nahiz eta hemendik kanpo oso gutxi ezagutzen den. Hala ere, nire ustez hutsune bat badago antropologiaren ikuspegitik: hizketaren inguruko ikerketak, hizkuntza naturalaren erabileraren ikuspegitik burutzea. Hemengo ikerketa soziolinguistikoak hizkuntzaren etnografia erabiltzen has daitezke. Gai honetan aitzindaria Dell Hymes antropologoa izan zen, berak sortu baitzuen “hizkuntzaren etnografia” terminoa. Esparru honetan egoera naturaletako hizketaldiak aztertzen dira; hizkuntza, gramatikari lotuta baino gehiago, ekimen simbolikoarekin lotuta aztertzen da. Beraz, ez gara kodeak aztertzeari buruz hitz egiten ari, baizik eta hizkuntzaren erabileraz, erregistro ezberdinez, entonazioaz, hitzen aukeraketaz, eta abarrez.

Horregatik uste dut garrantzi handia duela konnotazio-balioak aitortzea hizkuntzari. Hau da, hitzek literalki duten esanahiaz gain, kontuan izatea hitzek testuinguru zehatzetan dituzten esanahiak. Izan ere, aztertu beharko litzateke hiztunek nola erabiltzen dituzten hizkuntza-baliabideak giza harremanak sortzeko, identitate anitzak adierazteko, eta abar. Hori guztia, ikerketa makro-demolingüistikoei lotuta, oso aberasgarria izango litzateke. Modu horrek hiztunentzat hizkuntzak duen balioa ulertzen lagunduko liguke. Jadanik, ez da nahikoa jakitea zenbat edo zein testuingurutan erabiltzen den euskara. Uste dut etnografiak baduela horretan zeresana.

TXERRA RODRIGUEZ. Galdera da azkenean dibulgatu den ala ez, ezta? Nik uste dut baietz, dibulgatu egin dela. Baina aurrera begira non eta zertan eragin beharko genuke? Nik uste dut hori dela galdera. Eta hor bi arlo ikusten ditut, batez ere.

Alde batetik, etxeko soziolinguistika deitutakoaren inguruan dibulgazioa egin beharra dago, eta autolaguntza moduko aholkuak eman. Egunerokoan hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuetan laguntzen eta zirikatzen gabiltzanok ikusten dugu jendeari tresna batzuk falta zaizkiola, eta nik uste dut soziolinguistikatik etor daitezkeela tresna horiek, esan dudan moduan, soziolinguistikaren ikuspegi zabaletik; gehiago psikolinguistikatik soziologia hutsetik baino.

Beste alde batetik, aurrez aurreko egoerarako, eta baita gizarteari begirako horretan ere, aurreratu egin dugu azken urteetan, baina oraindik asko falta zaigu diskurtsoak plazaratzeko. Askotan esaten da euskalgintzan diskurtsoak eraiki behar direla. Nik uste dut diskurtsoak egon ba-

daudela baina ez daude inondik inora ere plazaratuta. Gainera beti eduki behar dugu begi bat kanpora begira. Alegia, kanpoan egiten diren gauza asko seguruenik ez dira baliagarriak izango hemen, baina, gutxienez, hona ekarri behar dira eta, akaso, pare bat buelta emanda aplikatzeko modukoak izan daitezke.

JULEN AREXOLALEIBA. Lehentasunezko arloak definitzerakoan argitu beharko da zergatik eta zertarako ari garen lan hau guztia egiten. Horren inguruan bi postura ikusi ditut nik gaur oso-oso garbi. Errealitatea asumitu egin behar dugula esaten duena *versus* atzerapen linguistikoaren kontzeptua gaitzat hartu behar dela esaten duena. Nondik joan nahi dugun pentsatu behar dugu. Zientzia eta politika sozialaren arteko eztabaida horretan ez nator bat bakoitzak bereaz arduratu beharko lukeela esaten duen pentsamendurekin: “zu arduratu zaitez zientziaz, nik politika soziala egin dezadan”. Formulazio hori tranpa dela pentsatzen dut. Eta niri zientzia kontzientziaduna interesatzen zait, errealitatean eragiteko zer dugun jakitea, ez berez norberaren ganbara betetzeko. Ikuspegi horretatik bi ikuspuntu behintzat badaude: “des-hazkunde linguistikoa”, eta “errealitatea onartu egin behar dugu”. Horiek bi mundu dira, eta norberak ikus dezala nondik begiratu nahi dion. Nik garbi dut nondik ikusi nahi dudana.

Beraz, niri informazioaren masifikazioa *per se* ez zait gehiegi interesatzen, eta unibertsitateak nator, baina badaukat ausardia hori esateko. Esate baterako, nik diglosiaren inguruan 42 egile izan diren, 52 edo 162 ez zait gehiegi axola. Ez dut esan nahi inori inporta behar ez zaionik, baina asko kezkatzen nau horretaz hitz egitea politika sozialaz ez aritzeko.

Gainera, norengana iritsi behar dugu? Ba haur, gaztetxo, gazte... hor badugu beste mundu handi bat, ezta? Xamarrek aipatu duen bezala, jada hogeitaka urte izango dira, bera, Iñaki Arruti eta neu Bartzelonara joan ginela. Orduan topatu genuen liburu hau, berak esan du gero EKBren hasierako BATen eta ADOREZen ildotik ba... *Soziolinguistika Gazteontzat*. Eta honek (katalanerazkoa) 14 argitalpen eduki baldin bazituen, honek (euskarazkoa) eduki zituen 18! bai, ezta? bakarra! eta itzulpena da eta egokitzapena ere bai. Jordik negar batzuk egin ditu Katalunian oraindik ere nola ikusten duen egoera azaltzen. Gu hemendik hasiko bagina aztertzen, ba seguruen ondorioak bestelakoak ere atera genitzake, baina, prekarietatean esplika diezagutela zer den ghettoa, esplika diezagutela, zer den ghettoa. Mitxelenak 77an ghettoa non ikusten zuen? Eta esplika diezagutela abentura maximalista zer den. Hara, Ameriketatik etorrita esaten dute hemen egiten ari garen hau ez dela beste inon egiten. Mitxelenak irudika zezakeen gaur egun hau egiten egon gintezkeenik? Unibertsitatean iritsi garen horretara iritsiko ginenik? Orduan, Mitxelena bat

Esango nuke profesionalen artean dibulgatu baino gehiago eurak formatu egin behar direla. Azken finean profesional horiek dibulgazioaren zabaltzaileak ere izan behar dute.

**Nolabait
komunitatetik
bertatik
sortutako
deialdiak ziren
eta hori
eraginkorragoa
da goitik behera
antolatzea baino.
Horregatik,
dibulgazioa
zabaltzeko bide
horretatik joango
nintzateke,
komunitateko
elkarteak
bultzatzeari
garrantzia
emanez.**

da eta bihoakio Mitxelenari nire partez miresmen osoa, baina Mitxelena bizi zen eta idazten zuen garaian bazeuden beste izen batzuk, bazegoen beste jende bat utopiaren eremu horretan, eta haiek hori irudikatu izan ez balute, gu gaur ez ginateke hemen egongo. Beraz, zer da ghettoa? Zer da abentura maximalista? Hori ere, errealtatea apur bat asumitu behar dugula dioenak... nik uste argitu beharko ligukeela.

ARKAITZ ZARRAGA. Bueno, egia esan, modu nahasi xamarrean baina gai gehienak agertu dira. Bai hizkuntzaren ingurukoak, bai ideologiaren ingurukoak, hizkuntza-politika norantz jo behar duen... Nire hurrengo galdera, lehendik aipatu den arren, honakoa izango litzateke: norengana jo behar dugu? Ispilua jarri dugu, baina nori eman behar diogu begietan ispilurekin? Nik mailaketa ezberdin batean jarriko nuke gaia: hizkuntzaren profesionalak, lan profesionalik egin gabe ere militantzia-gatik aritzen direnak (lehen komentatzen genuen bezala Euskal Herriko etxe bakoitzean gutxienik soziolinguista bat dago), euskalgintzaren inguruan dabilen jende ez hain inplikatur edo honelako kontuetan ez hain jantzia, eta ondoren euskalduntzen ari direnak, erdaldunak, edota kontrako jarrerak dituztenak. Norantz bideratu behar dugu ispilua soziolinguistikaren zabalpena egin behar badugu?

BENITO FIZ. Nik pentsatzen dut hiru bloke bereiztea komeni dela. Ez dakit nik bloke argiak diren baina bistan dago badirela: euskalgintzako profesionalak (direla irakasleak, teknikariak, e.a.), euskaltzaleak (euskararekin interes, konpromiso eta ekintza jardun berezia duen jendea) eta populazioa bera orokorrean. Nik uste dut hiru maila horietan, neurri batean edo bestean, eragiten dela:

Alde batetik, euskal irakaskuntzako profesionalek gutxienik beren hizkuntza-perfila zehazten denean badakite gaitasun batzuk zehaztu beharko dituztela, eta gaitasun horietan ziur asko soziolinguistikak edukiko du zeresanik, ezagutzan, garapenean, kapazitateetan, trebetasunetan, jarretan, pentsaeran edo portaeretan.

Bigarrena: euskaltzaleen artean esate baterako, *diglosia* bezalako terminoak ailegatu badira profesional izan barik, konpromiso-maila pertsonalaren ondorioz, zerbaitengatik izan da, interes bat egon delako. Neurri batean edo bestean transmisio-kate bat badago. Aztertu beharko litzateke zein izan den transmisio-kate hori; heldu, heldu da, deformazioarekin behar bada, baliteke, baina heldu da. Hori interesgarria da.

Eta hirugarrena, hizkuntza gutxitu bat dagoen bitartean, gure jendartean eta bizi garen lekuan hizkuntza-aniztasuna dagoelarik, horren inguruko gogoeta eta erabakiak hartzea jende guztiari dagokiola iruditzen

zait, neurri batean edo bestean. Agian hezkuntza-sisteman integratuta egon beharko litzateke hori, ez soziolinguistika asignatura modura, ez, gehiago beste zentzu batean. Pertsona bakoitzak gauza batzuk pentsatu behar ditu, informazio bat eduki behar du, informazio hori tratatu behar du, gauza batzuk egitea erabaki behar du.

Esate baterako, euskaltegira doazen euskara ikasleekin izan ohi dugun kezka izan ohi da ez dizkiegula hainbat gai ezagutzera eman. Berak ere ez ditu inoiz planteatu, eta momentuz bere jarrera euskara ikastea da, diren arrazoiak direla, baina ez daki zehazki zer den euskara, nolako erabilerera duen, ez eta herri batean hizkuntza elkarbizitza dela ere.

TXERRA RODRIGUEZ. Bueno nik ere hiru bloketako hartzaileak bereizten ditut Benito Fiz-en antzera: profesionalak, euskaltzaleak eta gizartea. Badakit hiru bloke estankoak jartzea ez dela erabat erreala, izan ere, denak dira gizartearen parte. Baina tira!

Nik uste dut, profesionalekin askotan hitz egiten dela dibulgazioaz. Dibulgazioaren kontzeptu arraro xamarra hedatu da, izan ere, esango nuke profesionalen artean dibulgatu baino gehiago eurak formatu egin behar direla. Azken finean profesional horiek dibulgazioaren zabaltzaileak ere izan behar dute.

Bigarrenik, argi eta garbi ikusten dudana kontua da euskaltzaleengana dibulgatu beharra. Azken finean, dibulgazioaren helburua bakarra da, ezagutza zabaltzea, gero gizartean aldaketaren bat lortzera begira, bestela ez du zentzurik. Julenek ere aipatu du gai hau, ezta? Ba prekarietatea eduki badaukagu, eta begi-bistakoa da gaur ditugun medioekin eta tresnekin ez garela gizartera heltzen. Beraz, hel gaitezen behintzat euskaltzaleengana eta gero hortik jo dezagun gizartera.

JACQUELINE URLA. Gogoratu nahi nuke garai batean egiten zen beste dibulgazio-modu bat. Duela hogeita bat urte oso interesgarria zen *euskara elkarteek* esparru honetan egiten zuten lana. Kultura-talde horiek herri bakoitzean antolatzen zituzten hitzaldiak eta jendea erakartzen zuten. Nolabait komunitatetik bertatik sortutako deialdiak ziren eta hori eraginkorragoa da goitik behera antolatzea baino. Horregatik, dibulgazioa zabaltzeko bide horretatik joango nintzateke, komunitateko elkarteak bultzatzeari garrantzia emanaz.

JULEN AREXOLALEIBA. Bueno ni bat nator esan berri denarekin. Neuk ere esan dut hiru multzo ikusten ditudala, ezta? Batetik sakontasuna behar dugu, baina sakontasuna ez zientziaren izenean, baizik eta partaideen artean praktikari begira igurtziko duena.

Bigarrenez, dibulgazioa ahalik eta formatu gehienetan egitea komeni da. Lehen Txerrak komentatu du dibulgazioa bera ziur asko gaur egun

**Ikuspegia
zabaldu egin
behar da, hemen
ez baitago medio
bat bestea baino
garrantzizkoagoa
, denek balio
dute, bai liburuak
eta baita ikus-
entzunezkoak
ere, bai
pilulatxoetan
emanda, bai
dokumental eran.**

neurri txikiagoan eta blog-etan egitea komeniko dela. Baina beste helburu batzuetarako oraindik ere paperean ikusiko dugu. Beraz, dibulgazioa XXI. mendean neurri txikikoa izan behar den edo 200 orriko aldizkarien bitartezkoa, ez dago argi.

Guk ahalegin hori egiten dugu. *Euskal Kulturgintza Transmisio*-aren bitartez nahi genuke hausnartzerako etxe bat izatea, Mikel Zalbidetik aipatu zuen bezala, *Clearing house* moduko bat. Hori egiten saiatzen ari gara *in situ*, eta dibulgazioa egiten saiatzen gara Euskadi Irratiaren bitartez, Berriaren bitartez edo gure Web-aren bitartez. Galdera izan daiteke ea asmatu ote dugun batez ere enpresetan dabilzanengana edota euskaltegietara heltzen, HABEra izan, AEK-ra izan edo Hika-ra izan; formatu txikitik dibulgatzeko moduko materialak izan daitezkeenak egiten zenbateraino saiatzen garen. Esan nahi dut ia hiru urtetan jende askok parte hartu duela irratsaioetan, kapsula txikitik, sintesi moduan, eta abar. Berriro egin behar dugu hitzaldien bitartez? Edo hor dauden material horiek baliagarri egin behar ditugu, honetako edo hartako lagungarri izan daitezkeen?

Eta hirugarrena: herriaren inguruan hitz egiteko, ez dakit herritarrengana formazio soziolinguistikoa eman behar ote diogun. XXI mendean ari garela, ekintzaren bitartez jendeak harrapa ditzake hor dauden parametro teorikoak nahi izanez gero. Eta praktika horrekin ados egonez gero, zientziak dioena aplikatzen ari zara, bai. Beraz, hiru maila horiek batetik. Zientzia *per se* niri oso gutxi interesatzen zait, nahiz eta bere garrantzia kendu nahi ez diodan, baina, praktikara eramango gaituzten ondorioetara iritsi behar da.

ARKAITZ ZARRAGA. Hori guztia ikusita, ez dugu zehaztu zein diren arlo eta tresna garrantzitsuenak. Aipatu dira batzuk, liburuak, aldizkariak, hitzaldiak, ikastaroak. Zein punturaino eman dute emaitza horiek, edo jarraitu dezakete emaitza ona ematen? Benito eta Txerra hemen ditugula aprobetxatuz, ze bide berri sortzen ari dira?

BENITO FIZ. Bueno, lehenengo dibulgazioaz ulertzen dudana azal dezadan, Julenek esan duen moduan. Printzipioz, dibulgazioa edozein dela ere, pertsona erakarri egin behar dugu. Zerbaitekin piztu behar dio interesa, hori ez da ahaztu behar. Kanalei dagokienez, batzuetan inpresioa ematen dit badagoela halako bibliomania edo bibliofilia bat: liburuak, liburuak eta liburuak. Baina gauza bat daukat argi eta *Soziolinguistika Eskuliburuarekin* simil bat egingo dut. Liburu hori prozesu batekin egin den produktu bat da. Baina prozesua ez da hor amaitu. Liburuak dibulgazio *post* horretan dago eta elkarreragina sortu behar du. Jendeak hor dagoenaren gainean

berba egin behar du. Dibulgazioa testu hori irakurtzea bada, jakina, baina nik uste dut gutxiengoarentzat balioko duela horrelako formatuak, esango nuke gero eta talde minoritarioagoarentzat.

Horregatik, interesgarria dirudi testua beste formatu batzuetara, beste hizkera batzuetara ekartzea. Hor esaten dena beste testuinguru batzuetara zabaldu behar da. Ikus-entzunezko formatuak gero eta hedatuago daude eta gero eta ohituago dago jendea. Gure belaunaldiko jendea txikitatik dago ohitua telebista eta irratiarekin. Hori da guretzat informazioa jasotzeko kanal nagusia, ez liburua edo testu idatzia. Eta hori osatu behar da, dela internet-en bitartez, dela aurrez aurrekoaren bitartez, dela papera erabiliz, baina ziklo bat osatu behar da.

TXERRA RODRIGUEZ. Benitoren idiekin bat nator. Eta bi gauza azpimarratuko nituzke. Alde batetik, dibulgazioa egiteko bide guztiak erabiltzea zilegi da, denak dira beharrezkoak. Askotan, hala ere, Internetekin itsutu egiten gara, eta uste dugu gauza guztien erremedioa izango dela. Nire ustez ez da horrela. Pentsatu behar da zer egin nahi dugun, eta horren arabera begiratuko dugu internetera jo behar dugun, dokumental bat egin behar dugun, edo lau kantari lotu behar ditugun euren kantuen bidez guk nahi ditugun mezuak zabaltzeko. Nire ustez, hori da lehenbiziko kapa: zer dibulgatu nahi dugun, nora eta nori. Horren arabera erabakiko dugu ondoren internet erabiltzea edo beste bertekorik erabiltzea. Argi dagoena da artelanak, kultur lanak, fikziozko liburuak... baliagarriak direla. Ikuspegia zabaldu egin behar da, hemen ez baitago medio bat bestea baino garrantzizkoagoa, denek balio dute, bai liburuak eta baita ikus-entzunezkoak ere, bai pilulatxoetan emanda, bai dokumental eran.

JULEN AREXOLALEIBA. Gure unibertsitatean ere, sarearen erabilera aintzat hartu nahi dugu. Bada hemen kontzeptu-aldaketa bat. Guk ez dugu esan nahi jakintza guztia hemen bilduta daukagula eta soilik hona etortzen den ikasleak ikasiko duela. Guk informazioaren zati bat eskaini nahi diogu ikasleari beste modu batean prozesatuta, baina kanpotik jarraitu nahi duenarentzat ere ez dugu ezer ezkutatzeko. Guk dugun guztia zabaltzeko da, eta hor ere gauzak aldatzen ari dira copyright eta gainerakoekin batera. Izan ere, egiten dugun hori zabaltzeko derrigortasun moralak gutxienez badaukagu.

Beste gai bat aipatu nahi nuke hemen. Mikel Zalbidek Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailean egin duen ahalegina dagozkigun lanak bideratzeko oso handia izan da. Eta ahalegin horretan darrai orain ere. Baina, ez dugu orain arte hitz egin babesle edo patrozinatzailearen figuraz. Adibidez, Xamarrek egin dituen lan gehientsuenak mezenas batek finantza-

Kanpoan ere zabaldu behar da, ez baita hemen gertatzen denaren inguruko berri handirik. Eta horrek euskararen aurkako diskurtsoa elikatzen du.

tuta egin ditu, kasu honetan, Bilboko Zenbat Gara elkarte. Hori izan ez balitz *Orhipean* edo *Orekan* ez ziren izango, ezta liburu horien gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioak ere. Eta hori kontuan hartzeko modukoa da. Beste adibide bat jarriko dut. Garabidek, sortu berri den elkarte batek, azken 50 urteetako euskararen berreskuratze-prozesua erakusten duen DVDa eta liburuxka argitaratu ditu 4 hizkuntzatan. Kontua da, askotan buru-belarri lanean ari garenok ez dugula dibulgazioa egiteko modurik izaten, eta beste nonbaitetik etortzen zaizkigula gero materialak. Garabideren liburuaren harira, paradoxikoa da Ikastolen Elkarteak halako lanik orain arte ez argitaratu izana. Helburua ez da egurra ematea inori, nork dagokion erantzukizuna hartzea baino, soziolinguistikaren baitako gaiak dibulgatzea garrantzitsua delako edonon. Beraz iruditzen zait eskerrak emateko modukoa dela, bide ofizialetik izan gabe ere, egin egiten direlako dibulgazio-lanak.

ARKAITZ ZARRAGA. Bueno, printzipioz, hau izan da mahi ingururako prestatua geneukana. Nolanahi ere, bildu ditzagun azken ideia batzuk elkarrekin izandako solasaldietatik eratorritakoak.

Orokortua dago haizearen kontra gabiltzalako sentsazioa. Hertz askotatik helduta, lanean ari gara baina zabaltzeko zailtasunekin. Euskararen kontrako mezua hain indartsua izanda, neutralizatzea asko kostatzen zaigu, eta neutralizazio hori lortu gabe alfer samarrik gabiltza, gauza asko egin arren. Gainera, gure politikoak, baita euskaren alde daudenak ere, beste norabait begira daude, ez diote euskarari behar duen garrantzia ematen, ez bada momentu jakinetan bandera moduan astintzeko, eta ez dela instituzioetatik aldeko mezu indartsurik jorratzen.

Idea bat azpimarratu behar genuke. Teknikariei eta bertako populazioari zuzendutako dibulgazioan zentratu gara ia denbora guztian. Baina kanpoan ere zabaldu behar da, ez baita hemen gertatzen denaren inguruko berri handirik. Eta horrek euskararen aurkako diskurtsoa elikatzen du. Kanpoan sarri topatzen dugu jendea hemen euskara inposatu egiten dela pentsatzen duena, euskara nagusi dela, gaztelania marjinatuta dagoela, eta abar. Horrelako ideiak *The Wall Street Journal* edo *New York Times* bezalako egunkari indartsuetan ageri dira. Eta harrigarria da zer gutxi ezagutzen den hemen gertatzen ari denaz eta euskararen alde benetan egiten ari eta egin behar denaz. Beraz, dibulgazioa ez da soilik formazio kontu bat, baizik eta errealitatea ezagutzera emateko saiakera bat. Gainera, kontuan hartuta azken boladan nazioartean hedatzen ari diren kultura aniztasunaren aurkako mezuak erraz hedatzen direla, inoiz baino beharrezkoagoa da benetako dibulgazio eraginkorra egitea. ●

OHARRAK

1. Mahai-inguru hau Soziolinguistika Klusterrak antolatutako IV jardunaldian egin zen 2011ko otsailaren 18an. Jardunaldi horretako egitaraua eta gainerako materiala helbide honetan dago ikusgai: <http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia/2011>. Zehazki, *Lanparak eta ispiluak soziolinguistika zabaltzeko* mahai-inguruaren bideoa ondorengo helbidean ikus daiteke: <http://www.soziolinguistika.org/jardunaldia/2011/bideoak>
2. Benito Fiz 2007. "Ikasgelatik plazara:hizkuntzaren normalizazioari helduen euskalduntzetik heldu nahian". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 2007ko martxoa, 62:127-139.
3. Imanol Esnaola 2010. "BAT aldizkariaren bilakaeraz". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 2010 (4), 77: 21-25. Maria-Jose Azurmendi 2010. "BAT Soziolinguistika Aldizkariaren XX. urteurrena ospatzen: hausnarketak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 2010 (3), 77: 19-51.
4. Mikel Zalbide 2010. "Hizkuntza-soziologiaren ibilia gurean". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 2010 (4), 77: 27-55.
5. Jaqueline Urlak gaztelaniaz hitz egin zuen mahai-inguruan. Itzulpena gurea da.
6. Mikel Zalbide 2010. "Hizkuntza-soziologiaren ibilia gurean". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 2010 (4), 77: 27-55.